

## NAGUSIA DENPOREARI BEGIRA

1

Behin jaio nintzan mundu hontara  
orain hainbeste denpora,  
uste baino lehen urterik asko  
pilatu jataz lepora.  
Nahitaez martxan sartu nintzan ta  
ezin aldendu inora.  
Ama-lokarri danak etenda  
sartu nintzan itsasora.  
Zenbat olatu, zenbat arrisku,  
ez-bai joango hondora!  
Baina argi bat gogora  
eta lagun bat ondora;  
geroztik biok alkar hartuta  
aurrera goaz gustora.  
Zuri eskerrak, ezagutu dot  
Jesus hau, Bizian Gora.

2

Gure munduko bizi-denpora  
heldu da azken aldera,  
sortu gaituan Jainkoak Berak  
ezarri deuskun legera.  
Jubilatuta, hartu dot deia  
Jaunaren mahaian jartzera,  
bion artean ze hartuemon,  
adiskideen antzera!  
Hau da bizitza! Hau da jarduna!  
Dana Jaunagaz batera.  
Oi Jaungoiko bihozbera!  
nire Aita-Ama zera!  
Pozik natortzu Zeuk maitasunez  
egindako konbitera;  
gaurtik maite dot Bizian Gora,  
hauxe da nire aukera.

3

Bizitza bera eskola bat da  
irakatsiez betea,  
geure lana da gauza bakoitza  
zer zelan dan ikastea.  
Guk badakigu zer dan bakea  
eta zer dan gerratea;  
ez dala bardin sabela hutsik  
edo bete eukitea.  
Guk bietara jokatuteko  
badogu borondatea.  
Ez da bardin esatea  
eta bizi izatea!  
Hau zoriona, orain hemen ta  
gero eternitatea!  
Guk nagusiok Bizian Gora  
dogu unibertsitatea.

4

Hemen naukazu larogei urtez  
gaur denporari begira,  
gure arteko hartuemonak  
atera nahirik argira.  
Etenbakoa dogu sortzetik  
hilibiziko tirabira;  
denpora bera da azkenean  
naroana hilobira.  
Baina bera be nirekin dator  
denporabako tokira.  
Kristo bizi da sikira,  
hau itxaropen distira!  
Zu barik noa, Jainkoa lagun,  
betiko bizi barrira,  
denpora jauna, neuk irabazi!  
Honeik guzurak ez dira.